

FRANTZISKO TIRAPU RETEGI

Frantzisko Tirapu Retegiri euskeraren alde eginiko lanaren oroimenez gaur Euskaltzaindiak eskaintzen dion ondo irabazitako omenaldi honen aurkezpena, nire ordeze bere ikasle izateko zoriona izan zuenetariko beste edozeinek beharka zuela egin, uste dut benetan.

Horiatariko batzuekin harremanetan jarriz, nahiz eta denok maisuari zor zitzaion eskerrona agertu eta hala sutsu adierazi ere, gauza da, aitzaki bategatik edo besteagatik ez dutela erantzukizun hori hartu nahi izan.

Frantzisko Tirapu Retegi, Pako izenaz ezagutzen genuen lagunen artean, etxekotasunez.

Bere gurasoak, Bernardino eta Maria Santos, biak ziren euskaldunak.

Erasunen jaioa, aitaren sendagiletza lanbideagatik Iruñera aldatu zuen familiak bere egoitza.

Hemen burutu zituen maisu ikasketak eta ondoren Zirauki, Leitza eta Iruñean ihar-dun zuen irakaskuntzan eta hemen agerrarazten du barnean zekarren euskararenganako grina.

Mila bederatziehun eta berrogeita hamargarren urtean hasi eta hirurogeita hamargarrena arte ekin zion euskera erakusteari, lehendabiziko ikasle talde txikia hirurehunekoa izatera iritsi zen arte.

“Principe de Viana” erakundearen babesean ekin zion lanari bere ikasle izan zen Zubiaur diputatu jaunaren laguntzaz. Ez zuen bere alde garai hartako gizarte-giroa, ez eta jotzen zuen haizea ere. Ez zituen lagungarri irakaskuntzarako teknikak; bere baitango lehian datza bakarrik izan zuen arrakastaren arrazoia.

Berak erein zuen haziari zor zaio piskana-piskanaka Nafarroako Geografiatik zehar hedatuko zen zuhaitz-besadarren euskal hostapea.

Gauza da, berak izan zituen ikasleen seme-alabak izan zirela laster ikastolek horituko zituztenak eta beragan datza baita ere “Arturo Kanpion” euskaltegiaren sorrera.

Mila bederatziehun eta larogeita hiruan egin zitzaion bere ikasleen izenean ondo irabazitako omenaldia, “Principe de Viana” erakundearen izenean Zubiaur jauna eta Euskaltzaindiarenean J.M. Satrustegi jauna tarteko zirelarik.

Agerian daude Pakok jarri zuen haziaren emaitzak eta eutsi diezaiogun denon artean hortik sorturiko txartakari, indartu eta enbortuz Nafarroa osoa gerizpetu dezan.

Iruñean, 1996ko martxoaren 29an

Jorge Cortes Izal